

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

3990

IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Afesa Medio Ambiente S.A. enpresak Lantarongo udalerrian (Araba) ingurumen-baimen bateratua funtsean aldatzeko aurkeztutako proiektu teknikoa.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ingurumen-baimen bateratua behar da I.A eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten titulartasun publiko edo pribatuko jarduerak eta instalazioak ustiatzeko.

Industriako isurpenen Erregelamenduaren 14. artikulua eta kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duenak (urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren bidez onartu zen) aldaketa funtsezkotzat jotzeko irizpideak ezartzen ditu.

Bestalde, aipatutako Erregelamenduaren 15.5 artikulua dioenez, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa osatu ondoren, jendaurreko informazio-aldia irekizea erabaki behar da, gutxienez hogeï egunekoa.

Azaldutako guztiagatik, AAI00366_MS_2026_001 espedientea jendaurrean jarriko da, hogeï egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki iritzitako alegazioak edo oharak aurkezteko.

Informazio publikoaren izapidea bete behar duen instalazioaren espedientea jendaurrean egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 10a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.